Gure euskal ahotsa Parisen!



JEAN TELLECHEA
Hautagai titularra

ITZIAR AIZPURU
Hautagai ordezkoa

· BOZKATU ·

eaj pnb
Les Démocrates Basques

2017ko Ekainaren 11a eta 18aren Legebiltzarreko hauteskundeak
VI. bozkaeremua

eajpnb

eaj-pnb.eus

ZURE INTERESAK 4 LEHENTASUNETAN
DEFENDITUKO DITUGU:

1 **IPAR EUSKAL HERRI BAT DENENTZAT:**
Lana, mugikortasuna, etxebizitza, medikuntza, elbarrituei laguntza, adinetako jendeak, zerbitzu publikoak, goi mailako emaria.

2 **FORMAKUNTZA HOBERENA, EZINBESTEKOA ONGI HELTZEKO!**

3 **GAURKO IPAR EUSKAL HERRIA: EUSKAL ELKARGO INDARTUA:**

- Lurralde Elkargo Bakarra bilakaraziz
- 5 erakunde bateratzaile eta eraginkorrak
- Euro-eskualde bat Nafarroa eta Euskadi-rekin

4 **ENERGI TRANTSIZIOA : BEHAR BAT ETA PARADA BAT!**



EUSKAL LEGEBILTZARKIDE DEMOKRATA: PARTE HARTZAILEA ETA ARDURATSUA

Legebiltzarkide batek legeen egiteko lanean eta gobernuaren zainketan parte hartzen du. Guk, EAJ-PNBren legebiltzakideek, Parisen, Ipar Euskal Herriko biztanleen alde, gure papela segurtatuko dugu, seriostasunez eta gogotsu.

Parte hartzaile eta gardenak izanen gira:

- tokiko talde publiko bat eraiki, tokiko arazo, legeei buruz hitz egiteko eta parte hartzeko,
- hilabeteko gutuna eraman ekintzei buruz,
- legebiltzarkidearen asteroko egutegia,
- permanentzia bat eraiki.



JEAN TELLECHEA

Hautagai titularra

- 47 urte
- Ingenerio industriala
- Aprendizgoa eta lanbide heziketaren arduraduna
- Urruñako auzapezordea : garapen ekonomikoa, komerzioa eta enplegua

eajpnb eaj-pnb.eus

eaj pnb
Les Démocrates Basques

GURE ENGAIAMENDUA: PARISEN, ZU DEFENDITZEA

Legebiltzarreko hauteskundeak presidentzialarenen ondotik datoztenak, hautesleen baitan frustrazio handiak sorarazi ditu.
Gure hautagaitzan atsemanen duzue kanpaina hortan baztertutako ideia nagusi bat: **lurraldeetatik lan egin.**

Ideia horren ondorioa: tokiko eragileak, beren konpetentziak bildu egitasmo amankomunak eraikitzeko eta bakotxa bere xokotik ateratuz.
"Lurraldeetatik lan egin" erran nahi du :
tokiko podere askoz indartsuagoak tokiko arazoei erantzuteko. Horretarako, legeak proposatu eta proiektu garrantzitsuak diruztatu behar dira.

EAJ-PNBren legebiltzarkide bat ez ote dea hoberena Parisen eragiteko zure interesen defenditzeko?



ITZIAR AIZPURU

Hautagai ordezkoa

- 62 urte
- Hendaian bizi
- Ikastetxe baten zuzendaria

eajpnb eaj-pnb.eus

eaj pnb
Les Démocrates Basques

IPAR EUSKAL HERRI BAT DENENTZAT!

LANA 8 gako

✓ **Ipar Euskal Herriaren Garapen Agentzia bat :** lankidetza ekonomia mailako eragileen artean, proiektu ekonomikoak xutik ezartzeko.

✓ **Formakuntza baliagarriak lantegientzat**, lantegiburu eta lanbide heziketarako aktoreen arteko harreman zuzenen ondotik, mail guzietako aprendizgoa garatu kolegiotik goi mailako irakaskuntza arte.

✓ **Baserriko Biziberritze Guneak atxiki** eta enplegu sortzeko zerga bultzatzailea, gure lurraldearen eremuen arabera (itsasaldea, Lapurdi barnekaldea, ibarrak eta mendi gunea) eta aktibitate alorren arabera.

✓ Enpresetan, solasaldi zoziala eta enpleguen malgutasuna laguntzen duten proiektuen sustengatzea.

✓ **“Euskal Herri “ marka eta sormarken (AOP, IGP…) jarraitzeko Agentzia** baten sortzea.

✓ Laborantxa herrikoi agro-ekologikoa eta zirkuito laburrak.

✓ **Laborantxa alor ttipiak sustengatu :** fruituak, eztia, … etxaldeetan, aktibitate ezberdinak eta iturri ezberdinen etekinak sortzeko, bereziki mendi gunean.

✓ **Laborantza lur funtsen mantentzea** eta aktibitate ekonomikoen guneak, Ipar Euskal Herriaren SCOTaren lehentasunetan.





ETXEBIZITZA 5 gako

✓ **EPFL (Tokiko Lurren Establizamendu Publikoa)aren jarraipena.** Etxebizitza eta aktibitate guneen programen lur funtsak ahalbideratzen ditu.

✓ **Elkartasuneko Lur funts erakundea:** lur funtsa erosten du eta horren jabe bilakatzen. Jabe berriak etxeak bakarrik diruztatu behar dute.

✓ **Etxebizitza kolektibo mota berrien sustengua,** zerga bultzagarriei esker: Lur funtsa erostea eta etxebizitza

✓ kolektiboen eraikuntza jende multzo baten gandik, kolokazioa edo belanauldien artean bizitzea bizitegi batean.

✓ Bigarren mailako egoitzen zergaren mantentzea.

MUGIKORTASUNA

3 gako

Euskal Elkargoa, kostalde eta barnekaldeko mugikortasun eraginkor baten sarearen eraikuntzan, lagundu behar da, helburu batekin : bataz besteko oren baten ibilbideak Baiona eta Maule, Garazi edo Hendaiaren artean :

✓ **Garraio publikoaren eskumen transferentzia departamendu eta eskualdetik Euskal Elkargora :** garraio azpiegiturak: bideak, bizikleta pistak, autopartekatzeen aparkalekuak, TERen zati bat, Garazi-Baiona trenbidearentzat.

✓ **Ipar Euskal Herriaren mugikortasunaren plangintza bat**, zati bat Estadoak diruztaturik, bi lehentasunekin :

• **Intermodalitatea :** tren-autobus harremanak, Baionako trenen geltokiaren ondoan eginen den autobus geltokiaren proiektua eredu bezala hartuz, ibilgailu eta autobusen harremanak: autopartekatze aparkalekuak, bizikleta eta ibilgailuen harremanak, bizikleten pista segurtatuen plangintza batekin Ipar Euskal Herri mailan, Baiona eta Hendaiaren arteko autobus bide bereziaren eraikuntza.

• **Txarteltegi bakar bat** Ipar Euskal Herri mailan, hilabeteko harpidetza finko batekin.

✓ Bokale-Hendaia autopistaren ardatza kitorik egunero mugitzen diren langileentzat



MEDIKUNTZAN
6 gako

✓ **Kostalde eta barnekaldeko Ipar Euskal Herriaren arteko medikuntza eskaintza bat hobekiago banatua**, kasu gehienak ongi tratatuak izaiteko, Maule, Donapaleu, Izpura, Baiona eta Donibane Lohitzuneko hospitalen eta kliniken artean.

✓ **Medikuntza eskaintza hobetu,** talde lana sustatuz, Hospitale, kliniken eta osagarri etxeen artean, Osasuna klusterraren adibidearekin :

· Elgarren arteko formakuntzak egin.

· Erosketa amankomunak, kudeaketa hobeago batentzat.

· Medikuntza eskaintzaz komunikatu.

· Mediku, kirurgilari, berezilarien lanak. antolatu, zentro horien artean, Donapaleu eta Baionaren artean egiten den bezala.

✓ Medikuntza alternatibo eta osagarriekin elgarren arteko lana.

✓ Mauleko hospitalea, gaur “Navarre Côte Basque” deitutako Ipar Euskal Herriaren osasun lurraldean sartu behar da.

✓ “Planning familial” delakoaren aktibitateak mantendu eta defendituko ditugu.

✓ Ongi jateko eta loditasunaren kontra, adikzioak eta drogen aurkako informazio eta prebentzio operazioak, eskola eta unibertsitateetan diruztatuko ditugu.

ELBARRITUAK LAGUNDU 5 gako

✓ Elbarrituen aktibitateetan berezituak diren elkarteak lagundu.

✓ Eskolaratze mailan : **eskolak ahal bezain bat ideki elbarrituei** ; formakuntza eta aprendizko sistemak moldatu elbarrarritasun mota ezberdinei.

✓ Sartze egokituen mailan : **mugikortasuna errextu** eta antolaketen legea aplikarazi.

✓ Enplegu mailan : **lanbide heziketa indartu**, ekintza plangintza bat eginez beregokitasunaren mailan.

✓ **Autisten, haurren, helduen eta laguntzaileen aldeko programa sustengatu.** Gipuzkoarekin harremanak sustatu, sail hortan, gaitasun berezia dutelako.



ADINETAKO JENDEAK

5 gako

✓ Desentralizazioari esker, departamenduak proposatzen dituen **diru laguntza mota ezberdinen arteko informazio pratikoa** proposatu, egiazko pedagogia egin.

✓ Legearen arabera, etxean egon daitezken menpekotasunean diren **adinetako pertsonen laguntzailei egiazko estatutu bat** sortu.

✓ Hiriko medikuntza, EPHAD eta hospitalaren arteko lankidetza hobetu, tratamendu egokientzat.

✓ Alzheimer gaixotasunaren plangintza indartu.

✓ Mugaz bestaldeko establizamenduekin posibilitate guziak ikusi, behar horiei erantzuteko.

KONEKTATU 4 gako

✓ Etxe guzietan goi mailako emaria instalatu, herri, administrazio eta Estadoaren zerbitzu informatizatu guzietan konektatzeko.

✓ Lantegi guzietan goi mailako emaria instalatu, beren lehiakortasunarentzat, beren bezero eta hornitzaileen harremanak hobetzeko, nazioarteko negozioa sustatzeko.

✓ Ikastetxe eta unibersitatean goi mailako emaria instalatu irakaskuntza digitalizatu hoberenen logiziel bereziekin konektatzeko.

✓ Kitorik diren Wifi publiko guneak sortu.



ZERBITZU PUBLIKOAK ATXIKI JENDEETAZ AHAL BEZAIN BAT HURBIL 2 gako

✓ Baserri guneetan : **herriko etxeetan zerbitzuak mantendu eta garatu**, biztanle bakotxak permanentzia bat ukan dezaten guttienez, astean behin.

✓ Biztanleak informatu Interneteko desmartxa administratiboei buruz.



FORMAKUNTZA HOBERENA, EZINBESTEKOA ONGI HELTZEKO

Formakuntzan, aprendizgoan eta goi mailako irakaskuntzan, ibilbide hoberena sustatu behar da. Gure proiektuan gazteei eman behar zaie parada guziak, beren bizia ahal bezain ongi ibiltzeko eta ahal bada Ipar Euskal Herrian. Goi mailako irakaskuntza, eskasa da gure lurraldean, 5000 ikasleekin bakarrik, Pauetik edo La Rochelle-tik urrunegi. Gure proiektuak 8 gako ditu.

✓ **Gure eskola digitala izanen da.** Ikasle bakotxaren bilakaera jarraitzen ahal da, zailtasunak dituzten ikasleak zehazki jarraituz eta beste programa zailagoak proposatuz hoberenei.

✓ **Aprendizgoa garatua izanen da irakaskuntzaren mail guzietan**, 14 urtetik goiti, goi mailako irakaskuntza arte. Gako nagusia da gazteak gizarteratzeko, lanaren bidez eta enpresen lehiakortasunarako.

✓ **Orientabide eta Informazio Zentro arraberrituak** etengabeko orientabide profesional batentzat. Ikasleak beren geroaz berantegi axolatzen dira.



✓ **Eskolak, gazteen gizarteratzearen aldeko helburua ukanen du,** gizartean, errexki eta modu arduratsuan ibiltzeko. Ikasgaiak izanen dira gai horiei buruz: erakunde publikoak eta hautetsiak, Kode Zibilaren eta Penalaren lege garrantzitsuenak, Euskal Herriaren historia eta geografia.

✓ **Gure eskolak hiruelebidunak** izanen dira (euskara, gaztelera, frantsesa), gure errealitateari egokituz. Gai hau segurtatzen duten ikastetxeek **hizkuntz gaitasunaren labela** lortuko dute.



✓ Unibertsitate eta goi mailako irakaskuntzarentzat, formakuntza kurtso berriak proposatuko ditugu Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Europa mailako fama duen Deustoko unibertsitatearekin (Donosti-Bilbo), Mondragon unibertsitatearekin edo Iruñako medikuntza fakultatearekin.

✓ **Unibertsitatea lantegietaz hurbilduko dugu**, egiten den bezala jadanik Euskadin, Nafarroan eta Alemanian.

✓ Lanbide heziketa lehen lehenik langabeei zuzendua izan behar zaie. Horren alde lan eginen dugu.

3 GAURKO
IPAR EUSKAL HERRIA!

EUSKAL ELKARGOTIK LURRALDE ELKARGORA 5 gako

✓ **Frantzia eskualdetu bat** gure auzo Europarrak bezala, lurraldeetan ekimenak blokatzen eta oztopatzen duen zentralismo hierarkikoa kenduz.

✓ Ipar Euskal Herriak **Lurralde Elkargo Bakarraren (LEB) Estatutua** ukanen du, bere hautetsiak zuzenean hautatuak izanen direlarik.

✓ Ipar Euskal Herriak beharrezko eskumenak ukanen ditu **barne oreka arazoak konpontzeko**, itsas gune eta barnekaldearen artean, itsas gune eta Ibarra edo mendi guneen artean.

✓ Elkargo berri horrek **Eskualde eta Departamenduaren eskumenak** ukanen ditu, laster erantzuteko eta lurraldearen errealitateei egokitzeko, ekonomia, zozial, kultur, hizkuntza, etxebizitza, lur funtsa, garraio, ingurumen, energi eta osagarri alorretan.

✓ Euskal Elkargoak **Euskal Herri Euro Eskualdean** parte hartuko du, anaien arteko sinergiak bultzatuz.



EUSKAL ELKARGOAK ANIMATUKO DITUEN 5 ERAKUNDE BATERATZAILEAK

5 gako

✓ **Garapen Ekonomirako Agentzia.** Eragile ekonomiko guziak bilduko ditu (Merkatal Ganbara, Ofizioen Ganbara, kontsumitzaileen elkarteak, profesionalen sindikatuak, klusterrak, lanbide eta goi mailako Heziketak, EPFL, Hiriguneko Agentzia, ...), elgarren arteko proiektuak sortzeko, klusterren garatzeko eta tokiko sail ekonomikoak sustengatzeko. 4.0 ekonomian sartzen diren lantegiak sustengatuko ditu.

✓ **Energia eta klimaren tokiko Agentzia.** 1994az geroztik, Europar Batasunak Agentzia horiek sustengatzen ditu, alor horretan, tokiko sistemek duten garrantziaren gatik. Energiaren Agentzia horrek, eragile guziak bilduko ditu.

✓ **Garraio Agentzia** batek garraio azpiegituren ondorioak aztertuko ditu, bereziki ingurumen mailan. AHTrekin adibidez, gaurko trenbibide sarea antolatuz.

✓ **Goi mailako irakaskuntzen Kontseilua.** Bateratuko ditu Paue eta Aturri Herrien Unibertsitatea, lanbide heziketa eta formakuntza orokorren ikastetxe guziak, eragile ekonomikoak. Kontseilu horrek Ipar Euskal Herriko goi mailako irakaskuntza garapenaren helburua ukanen du, sail orokorrak sortuz eta tokiko behar ekonomikoei erantzunez.

✓ **“Euskal Herria“ marka eta sormarken (AOP, IGP, ...) laguntzeko Agentzia bat.**

EUSKARAREN LURRALDE ESTATUTUA 3 gako

Euskara kenka txarrean da, Ipar Euskal Herrian, euskal hiztunak %20a baitira bakarrik. Gure lurraldearen zutabe kulturala bezala, bere mintzaira gabe, Ipar Euskal Herriaz hitz egitea zentzurik ba ote du? Legezko Estatutu babesle batek, hizkuntzaren biziraupena baldintzatzen du.

Estatutu horrek 3 ardatz ukanen ditu: sailkatzea, esperimentatzea eta hitzartu:

✓ **Gaurko araudi babesleak sailkatu,** euskara baliatu nahi duten tokiko eragileak segurtatzeko.

✓ Ipar Euskal Herrian araudi bereziak **esperimentatu**, Konstituzioaren 72. artikulua, 4. atala-ren arabera: murgiltze erakaskuntza publikoa, batxilergoa esukaraz, erakasleak diruztatu euskal elkargoarekin, …

✓ **Hitzartu erakunde publikoekin** (Enplegu Agentzia, Zerga Etxea, …) edo kasik publiko direnekin (CAF, CPAM, Miarritzeko aireportua, posta, EDF, geltokiak, …), errezebitze zerbitzuetan diren jendeak formatzeko, barne eta kanpoko komunikazioa euskaraz eta fransesez egiteko, seinaletika elebiduna euskara-frantsesa ezarriz, … Lankidetza garatuko du Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuarekin: erakaskuntza, komunikabideak, …)



EUSKAL LURRALDEEN ARTEKO LANKIDETZA INDARTUA : IPARRALDE, EUSKADI ETA NAFARROA 3 gako

Lurralde industrialak, bizi ekonomiko eta kultural handiarekin, % 10 eta 11 inguruko langabezi tasarekin, Euskadik eta Nafarroak



parada ezberdinak eskaintzen dituzte: ikusgarri kulturalak eta kirol ekintzak, lanbide eta unibertsitate mailako irakaskuntzak, goi mailako ikerketa zentroak, langile prestatuak bilatzen dituzten enpresak, Burdeoseko mailako Donostiaren hospitalea, …

EAJ-PNB, Bidasoaren bi aldeetan dagoen mugimendua da. Hori garrantzitsua da.

Horrelako ekimenak lagundu eta sustengatuko ditugu :

✓ **Baiona-Donostia Euro hirigunearen xedea :** Baiona eta Donostiaren arteko harremana, Topo-aren zerbitzua handituz eta oztopo gabeko mugikortasunari esker.

✓ **Euro-eskualdearen sorkuntza :** Euskal Herria-Pays Basque-Pais Vasco-Basque Country, hiru lurraldeekin: Iparralde, Euskadi, Nafarroa.

✓ **“Hizkuntz label” baten sorkuntza**, euro eskualdearen hiru hizkuntzen irakaskuntza garatuko duten ikastetxeentzat : euskara, frantsesa, gaztelera, B1 Europar mailan.

ENERGI TRANTSIZIOA: BEHAR BAT ETA PARADA BAT

Mundu mailako erronka nagusi hau lurraldeetan ere landu behar da. Energiaren tokiko Agentziak eragile guziak bilduko ditu: Garapen Agentzia, artisauak, garraiolariak, laborariak, alorreko enpresak, ingurumen elkarteak, hiriguneko Agentzia. Agentzia horren bidez, EAJ-PNBren proiektuak 5 gako ditu :

✓ **Egoitzen arraberritze termikoa :** aholku pertsonalizatuak jendeei, enpresei, administrazioei.

✓ Ipar Euskal Herriko **biharko energi sailen garapena :** hidroelektrizitatea, biomasa eta horietan egur-energia, metanizazioa, fotovoltaikoa.

✓ **Neurrizko energi erabilpena eta energi berriztagarrien erabilpena :** animazio antolaketa: eztabaidak, erakusketak, gazteei eta profesionalei zuzendutako bilkurak, neurrizko energiaren erabilpena edo energi berriztagarriak gaiak aipatuz.

✓ **Janarien zirkuito laburren sustapena :** gaurko zirkuito laburren elgarretaratzea, sustatzeko eta garatzeko, tokiko kontsumitzaileei azalpenak emanez, eztabaida, erakusketa edo tokiko komunikabideen mobilizazioari esker.

✓ **Lege proposamen bat, ekoiztu energi berriztagarriak, auzoen artean edo lurralde mailan, elkar banatzeko,** elektrizitate enpresa bati derrigorrezko elektrizitate salmentarekin bururatuz.

